

OARSOALDEA SUSPERTUZ

Covid-19ak sortutako krisiaren ondoren
Oarsoaldeko ehun sozioekonomikoa suspertzea

Oarsoaldearen eta bere enpresen egoera aztertzea



Zure negozioaren
egoeraren
azterketa bat
egin nahi?

Edo laguntzei eta diru-laguntzei
buruzko orientazioa nahi duzu?

DOAKO ZERBITZUA



Helburuak



Oarsoaldeko
**enpresa-
ehuna aztertu**

Oarsoaldeko
enpresa-ehuna
zaintzeko

Eskualdeko enpresetan faktoreen eta testuinguru ekonomikoaren eragina aztertu da, haien lehiakortasuna hobetzen laguntzeko

Diagnostikoak egin dira enpresetan

1

enpresen errealitatea
ezagutzeko

2

haien bilakaera ezagutzeko eta
aukerak identifikatzeko



Aukera horiei aurre egiteko
IBILBIDEA DEFINITU eta
PROZESUA GIDATZEKO ERABILI

Zer ikusiko dugu...

- 1 **ENPRESEN JOERA ETA GAKO GLOBALAK.** 2021-2022 denboraldian enpresei eragiten ari dizkieten faktore nagusiak eta eragiteko modua.
- 2 **OARSOALDEAKO ENPRESEN LEHIAKORTASUNAREN AZTERKETA.** Egoera ekonomiko orokorra eta joerak edo faktoreak aintzat hartuta, enpresak aztertu dira.

ONDORIOAK AZALERATU. Enpresetarako kritikoak izan daitezkeen zenbait ondorio eta gai azaleratu.
- 3 **GOMENDIOAK.** Etorkizuneko jarduerak bideratzeko balioko duten gomendio batzuk.
- 4 **2023an ENPRESEI ZUZENDUTAKO ERRONKAK ETA PROIEKTUAK OARSOALDEAN**



1

MAKROJOERAK ETA OINARRI GLOBALAK



Gure enpresetarako
joerak, gizarte-erronkak
eta, aldi berean,
abantaila lehiakorra
ematen duten iturriak
identifikatu ditugu
honako arlo hauetan:

- Soziodemografia
- Energia-ingurumena (energia, ura, mugikortasuna, ekonomia zirkularra)
- Esparru digitala
- Ekonomia (egoera ekonomiko-finantzarioa, negozio-ereduak)
- Gaitasunak indartzea (enpresen gobernantza, kudeaketa-ereduak, anbitrebetasuna)

Sozio- demografikoak

- Langileen kopurua murriztea
- Erretiroek eta eskulan eskasiak teknologiarekiko eta immigrazioarekiko mendekotasun handiagoa eragingo die enpresei, eta jardueren itxiera
- Gizartearen zahartzeak aldaketak eragingo ditu kontsumoan, eta horrek produktu eta zerbitzu berrietarako aukerak sortzea ekarriko du, baita beste batzuk egokitzea ere.
- Gizartearen zahartzeak aldaketak eragingo ditu kontsumoan, eta horrek produktu eta zerbitzu berrietarako aukerak sortzea ekarriko du, baita beste batzuk egokitzea ere.
- Belaunaldi gazteenek ezaugarri, balio eta erlazio desberdinak dituzte teknologiarekin.
- Emakumeek presentzia handiagoa dute lan-merkatuan, hazten ari den botere ekonomiko eta finantzarioarekin.
- Kontsumo-ohituren aldaketak

Energia- eta ingurumen- arlokoak (energia, ura, mugikortasuna, ekonomia zirkularra)

- Zerga ekologiko berriak, ingurumen-araudiak gogortzea, energia berriztagarrietan inbertitzea
- Plastikoaren erabileraren murrizketak
- Ur eskasia
- Zero hondakin, ekonomia zirkularra
- Karbonorik gabeko espazioak
- Energiari dagokionez eraginkorrak diren enpresak, eraikuntza iraunkorrak
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak
- Mugikortasun-konexioak, mugikortasun-irtenbide berriak
- Produktuen ekodiseinua

Digitalak

- Lan- eta enpresa-ingurunean gure gidatzeko modua aldatuko du teknologiak
- Datuen moneta funtsezkoa izango da enpresen lehiakortasunerako: estrategia eta errentagarritasuna
- Pertsonen inbertsioak eta gaitasun digitalak handitzea
- Zibersegurtasuna faktore kritikoa da
- Soluzio digital, fisiko eta biologikoen konbinazioa aplikazio industrialetan
- Teknologia berriak eta askotarikoak garatzen eta etengabe aldatzen
- Enpleguen automatizazioa
- Enpresa adimendunak: automatizatuak, energetikoki eraginkorrak,...

Ekonomikoak

(egoera
ekonomiko-
finantzarioa,
negozio-
ereduak)

- Munduko politika komertziala aldatzen ari da. Munduko botere ekonomikoa Asia eta Afrikarantz aldatuko da
- Munduko hazkundera gelditzea. Faktore ugari produktibitatearen eta ekonomien hazkundera moteltzen dute
- Negozio-eredu berriak: internet, zerbitzazioa, datuen aroa, pertsonalizazioa, ondasun komuna, ekonomia partekatua
- Aldaketak lan-merkatuan: aldaketa demografikoa, lan-ingurune aldakorak, teknologiek giza lanaren zati bat ordezkatu dezakete, gaur egungo lanpostuak desagertu egingo dira eta lanpostu eta trebetasun berriak eskatuko dira

Gaitasunak indartzea (enpresen governantza- kudeaketa- eredu anbidestreza)

- Gobernuen eginkizun bideratzaile berria
 - Governantza-ikuspegi parte-hartzaileagoak
 - Kudeaketa-eredu berriak enpresa hobeak eraikitzeko
 - Hiriak izango dira gune ekonomiko berriak. Lurraldeen arteko orekaren beharra
 - Erabakiak hartzeko orduan, kultura estrategiko eta prebentibo baten beharra areagotzen da.
- "Ambidestreza"

2
OARSOALDEKO
ENPRESEN
LEHIAKORTASUNA
AZTERTZEA

AZTERTU DIREN GAIAK

■ Nola eragiten ari die enpresei testuinguru ekonomiko berriak eta ziurgabetasunak? Salmentak, kostuak, irabaziak, eskulana, inbertsioak eskeak

■ Zein dira erronkak eta arazo nagusiak?

■ Enpresen sendotasunak, ahuleziak eta mehatxu nagusiak

■ Nola egiten ari diete aurre erronkei eta hiru trantsizioei (digitala, energetiko-ingurumenekoa eta sozioekonomikoa)? Aurrez ikusitako inbertsioak, proiektu digitalak eta proiektu horietarako eremuak

■ Zer programa publiko erabiltzen ari dira? Eta zer laguntza botatzen dituzte faltan?



Sektoreen arabera

27,9% merkataritza
23,5% ostalaritza
17,6% zerbitzuak
14,7% industria
8,8% kultura eta sormena
7,3% turismoa

Udalerrien arabera

31,8% Oiartzun
28,9% Errenteria
18,8% Pasaia
18,8% Lezo
1,4% beste batzuk

Forma juridikoa

%57,5 autonomoak dira eta
%25,7 sozietate mugatuak.
Gainerakoak forma juridiko
desberdinetan banatzen
dira

Ibilbidea

%76,7 lanbide-ibilbidea
duten
establezimenduak dira,
% 23,2, ordea, sortu
berriak

Laginareen karakterizazioa

Guztira, sektore
orotako 67 enpresei
lagundu zaie.

Tamaina

Establezimenduen tamainari dagokionez, **%89,2 inguru mikroenpresak** dira eta horien barruan **%64,6k langileak** ditu, 10etik behera izan arren; **%24,6k** ez du langilerik kontratatuta

Jabetza

Establezimenduen % 60,2 lokalaren jabea da

Adina

Establezimenduetako langileei begira, **%92,2k 59 urte baino gutxiago** ditu; bien bitartean, **%7,8 erretiratzeko adinean** edo **erretiratzetik** hurbil dago

Jabeen **%81,9k 59 urte baino gutxiago** ditu; bien bitartean, **%18,1 erretiratzeko adinean** edo **erretiratzetik** hurbil dago

Laginareen karakterizazioa

Guztira, sektore orotako 67 enpresei lagundu zaie.

Ondorioak sektoreen arabera

Laginean ordezkaritza handiena dutenak

merkataritza

ostalaritza

zerbitzuak

industria

1

Merkataritza tradizionala



Merkataritza tradizionala

- Inflazioa igotzearen ondorioz kontsumoa jaisten ari da, eta merkataritza tradizionalaren salmentetan eragiten ari da
- Halaber, susmatzen da inflazioak Covidaren ondorengo merkataritza elektronikoaren booma ere geldituko duela. Hala eta guztiz ere, merkataritza elektronikoak merkataritza tradizionalak baino kostu gutxiago ditu
- Enplegua eta inbertsioak mantentzen dira
- Gastuak gorantz doaz
- Merkataritza-tartea eta irabaziak murriztu dira. Denbora batez merkatarik askok merkataritza-tarteari uko egin diote, baina estrategia hori ez da jasagarria
- Azken gertakariak ondore gisa ekarri dute sektorea berriz ahultzea
- Sektoreak honako kezka hauek ditu: horniduraren arazoak eta likideziarekin eta finantzaketarekin lotutako gaiak

Merkataritza tradizionala

- Inbertsio teknologikoak egiten ari dira, baina ez dituzte digitalizazio-proiektu berriak aurrez ikusten
- Berrikuntza ez-teknologikoari dagokionez, bezeroen eremukoa baino ez zaie interesatzen
- Ez dute gai energetikoei buruz hitz egiten
- Ez dute trantsizio soziodemografikoaren alderdiez (enpresa-jarraipena) hitz egiten
- Honako programa hauek interesatzen zaizkie: teknologia, prestakuntza, inbertsioak, finantzaketa
- Estali gabe gelditu zaizkien beharrak: inbertsioak, kontratazioa

Ahuleziak, mehatxuak, indarrak, aukerak

AMIA analisia

A

Ahuleziak

Sustapena eta
komunikazioa

M

Mehatxuak

Lehiakide berriak
sartzea

I

Indarrak

Produktua, bezeroen
balorazioa, pertsonak


A

Aukerak

Eskea gehitzea

2

Ostalaritza



- Jarduera berreskuratu dute eta salmentak gehitu dituzte pandemiari eusteko hartu ziren murriztapen-neurriak atzean utzi dituztenean
- Enplegua doitu dute
- Inbertsioak mantendu eta hazten ari dira
- Gastuak gehitu dira
- Merkataritza-tartea eta irabaziak murriztu dira
- Sektorea ukitu duten gertakari guztiek eta establezimendu-parkearen adinak honako hauek ekarri dituzte:
 - itxierak, batzuk enblematikoak
 - Enpresa-kontzentrazioa
 - Ostalaritzaren eredua aldatzea
 - Gelditu diren establezimenduek finantza- eta enpresa-muskulu handiagoa dute
- Sektoreak honako kezka hauek ditu: langilerik eza. Eskulanarentzat ez da oso sektore erakargarria

Ostalaritza

- Inbertsioak, neurri batean, teknologikoak dira, eta eremu horretan proiektu gehiago aurrez ikusten dituzte
- Berrikuntza ez-teknologikoari dagokionez, bezeroen, pertsonen nahiz establezimenduaren eremukoa eta ekonomia-zein finantza-esparrukoa da
- Ez dute gai energetikoei buruz hitz egiten
- Trantsizio soziodemografikoari eutsiz, establezimenduetan jarraipen-arazoak daude, langileak kontratatzeko arazoez gain
- Honako programa hauek interesatzen zaizkie: inbertsioak, teknologia, kontratazioa
- Estali gabe gelditu zaizkien beharrak: inbertsioak, kontratazioa

Ostalaritza

Ahuleziak, mehatxuak, indarrak, aukerak

AMIA analisia

A

Ahuleziak

Sustapena eta
komunikazioa zein
salmenta-puntuak

M

Mehatxuak

Bezeroen erosteko
ahalmena gutxitzea

I

Indarrak

Produktua, bezeroen
balorazioa, pertsonak

A

Aukerak

Eskea gehitzea, bezero
berriak, zerbitzu
berriak

3

Zerbitzuak



Zerbitzuak

- Sektore dinamikoa da, eta hazkuntza progresiboa du
- Enplegua mantendu da
- Inbertsioak mantendu eta hazten ari dira
- Gastuak gehitu dira
- Merkataritza-tarteari eta irabaziei eutsi zaie
- Nahiz eta testuingurua konplexua izan, lehiakortasuna mantendu dute
- Sektoreak honako kezka hauek ditu: langilerik eza eta eraginkortasun energetikoa
- Digitalizazio-proiektu gutxi
- Berrikuntza ez-teknologikoari dagokionez, bezeroen, komunikazioaren eta langileen eremukoa interesatzen zaie
- Alderdi energetikoak kezka modura komentatzen dira, baina ez da neurririk hartzen
- Trantsizio soziodemografikoari buruzko gaiak langileak kontratazeko kezka gisa baino ez dira komentatzen
- Honako programa hauek interesatzen zaizkie: kontratazioa, eraginkortasun energetikoa
- Estali gabe gelditu zaizkien beharrak: kontratazioa, eraginkortasun energetikoa

Ahuleziak, mehatxuak, indarrak, aukerak

AMIA analisia

A

Ahuleziak

Sustapena eta
komunikazioa,
pertsonak, prozesuak

M

Mehatxuak

Lehiakide berriak,
ordezte-produktuak,
produktu berriak

I

Indarrak

Produktua, bezeroen
balorazioa, prezioa,
pertsonak

A

Aukerak

Eskea gehitzea,
teknologia



4

Industria

- Sektore dinamikoa da, eta hazkuntza progresiboa du
- Enplegua, inbertsioak, gastuak, merkataritza-tartea eta irabazia mantendu ditu
- Nahiz eta testuingurua konplexua izan, lehiakortasuna mantendu dute
- Sektoreak honako kezka hauek ditu: horniduraren arazoak eta langilerik eza
- Teknologia da beren inbertsioen ardatz nagusia, eta eremuan proiektuak aurrez ikusten dituzte
- Berrikuntza ez-teknologikoari dagokionez, arlo anitzak interesatzen zaizkie: bezeroak, merkatuak, pertsonak, logistika, ekoizpena, ekonomia- eta finantza-esparrua
- Ez dituzte gai energetikoak berariaz aipatzen
- Trantsizio soziodemografikoari dagokionez, kezka modura langileen kontratazioa komentatzen da
- Interesatzen zaizkien programak anitzak dira: inbertsioak, teknologia, prestakuntza, kontratazioa, eraginkortasun energetikoa, enpresa-eskualdaketa
- Estali gabe gelditu zaizkien beharrak: eraginkortasun energetikoa, prestakuntza eta inbertsioak

Industria

Ahuleziak, mehatxuak, indarrak, aukerak

AMIA analisia

A

Ahuleziak

Sustapena eta
komunikazioa

M

Mehatxuak

Lehiakide berriak,
eskea aldatzea

I

Indarrak

Produktua, bezeroen
balorazioa, pertsonak,
prozesuak

A

Aukerak

Merkatu berriak, eskea
gehitzea, teknologia




3

GOMENDIOAK



Nahiz eta sektoreetan zeharka trantsizio digitala gehien bilakatu den (pandemiari esker), hobetzeko tarte handia dago eta bultzatzen jarraitu behar da, estrategikoa delako eta, nagusiki, merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan ikusten direlako oztopo digital handienak.






Energiaren eta ingurumenaren arloko trantsizioa emaitzetan erabat ahaztu da, beraz, argi dago eremu honetan ezinbestekoa dela sentsibilizazio- eta astintze-lana.

Trantsizio soziodemografikoa eta bere eratorriak (langileak kontratatzeko arazoak eta negozioek jarraitzeko arazoak) sektore guztietan kezkarriak dira eta erronka bilakatzen dira. Laburbilduz, **talentuaren arazoa**. Ikusi beharko da nola egin dakiekeen aurre gai horiei eta, ildo horretatik, talentua eskuratzeko eta enpresen nahiz sektoreen erakargarritasuna hobetzeko zer proiektu gauza daitezkeen.





Bezeroen eremuko berrikuntzak eta enpresen sustapenari eta komunikazioari buruzko alderdiek sektore guztietan zeharka interesa dute.



4

**2023an ENPRESEI
ZUZENDUTAKO
ERRONKAK ETA
PROIEKTUAK
OARSOALDEAN**

2023

2023an, Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentziak gure enpresen iraunkortasunaren alde lan egiten jarraituko du, honela:

1

Egoeraren pultsua hartzen jarraituko dugu

enpresak babestuz eta proiektu berriak diseinatzuz haien beharrei erantzuteko, programa honen bidez. **OARSOALDEA SUSPERTUZ III**

2

Trantsizio digitala erraztuko dugu

a. Hiri-ekonomia programaren bidez **BERPIZTU TICKETBAI-DIGITALIZAZIOA**

b. Industria programaren bidez **PYME DIGITALA** -Informazioa aurki webgunean-

3

Berrikuntza bultzatzen lagunduko dugu

a. Hiri-ekonomian, **BERRIKUNTZA EZ DIGITALERAKO PRESTAKUNTZA BERPIZTU** programaren bidez

b. Industria programaren bidez **HAZINNOVA**

2023

2023an, Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentziak gure enpresen iraunkortasunaren alde lan egiten jarraituko du, honela:

- 4 Energia- eta ingurumen-trantsizioan oinarrituko gara
 - a. Hiri-ekonomian, ENERGIA BULEGOA zerbitzuaren bidez
 - b. Industrian **OTEl programaren** bidez -Informazioa aurki webgunean-
- 5 Trantsizio soziodemografikoari aurre egiten lagunduko dugu
 - a. BERRABIATU zerbitzua, enpresen transmisioa errazteko

Talentua erakartzen eta bertan gelditzen lagunduko duten proiektu berriak diseinatzeko ari gara.

Eskerrik asko!

